BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3294

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 12koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateari ingurumen-baimen bateratua ematen diona, burdina eta altzairua galdatzeko Ezkio-Itsasoko udalerrian (Gipuzkoa).

AURREKARIAK:

2007ko azaroaren 7an, Javier Arcelus Larrategi jaunak, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietatearen izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako orduko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumen-baimen bateratua emateko eskatu zion, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoarekin bat etorriz, Ezkio-Itsasoko udalerrian (Gipuzkoa) burdina eta altzairua galdatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Ezkio-Itsasoko Udalak emandako aldeko hirigintza-txostena –2007ko abenduaren 3koa– eta agiri tekniko hauek aurkeztu zituen:

● Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak ingurumen-baimen bateratua eskatzeko egindako proiektua (2007).

● Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak ingurumen-baimen bateratua eskatzeko dokumentazio gehigarria biltzen duen eranskina (AAI) (1/2) (2007).

● Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak ingurumen-baimen bateratua eskatzeko dokumentazio gehigarria biltzen duen eranskina (AAI) (2/2) (2007).

● Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak egindako laburpen ez-teknikoa (2007).

● Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak ingurumen-baimen bateratua eskatzeko proiektuari erantsitako dokumentazio gehigarria I (2007).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak, besteak beste, jarduerarako baimena zuen, 1994ko abenduaren 1ekoa. Baimen hori altzairu berezia galdatzeko jarduerarako eman zen. Era berean, irekitze-baimena du. Halaber, enpresa sustatzaileak putzu-ura hartzeko baimena zuen, 2000ko martxoaren 8koa, eta hondakin geldoen sortzaile gisa erregistroan inskribatuta dagoela dioen ziurtagiria, 1998ko azaroaren 3koa, urari eta hondakinei buruz indarrean den araudiak ezarritakoari jarraituz.

2008ko uztailaren 2an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak aurkezteko eskatu zion sustatzaileari.

Ingurumeneko sailburuordeak 2008ko urriaren 10ean emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen, 30 egun balioduneko epean, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Hala, proiektua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko urriaren 29an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen, 2008ko urriaren 26an, eta aldameneko auzokideei jakinarazpena bidali zitzaien, banan-banan.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, zaratarekin eta atmosferara egindako isuriekin lotutako bi alegazio aurkeztu direla egiaztatu da. I. eranskinean dago jasota alegazio horiei buruzko azterketa.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2009ko otsailaren 26an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Ezkio-Itsasoko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, eta espedientean ageri den emaitza jaso zuen.

Eskaeraren izapidetzearekin jarraitzeko asmoz, 2008ko abenduaren 11n eta 2009ko ekainaren 18an agiri osagarriak gehitzeko eskatu zitzaion sustatzaileari; dokumentazioa 2011ko otsailaren 4an osatu zen.

2011ko martxoaren 3an, Ezkio-Itsasoko Udalak eta sustatzaileak administrazio-emakida ezartzeko kontratu bat izenpetu zuten, hain zuzen ere eremuaren erabilera pribatiboa arautze aldera eta erabilera horri legezkotasun-titulua emate aldera; horretarako, sustatzaileak instalazio lagungarriak ezarriko zituen.

Ezkio-Itsasoko Udalak 2011ko martxoaren 28an sustatzaileari jakinarazi zion enpresak burutzen duen jarduera bat datorrela sustatzailea kokatuta dagoen eremuko hirigintza-planarekin.

2011ko martxoaren 10ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako Ebazpen-proposamenaren zirriborroa gehituta.

2011ko apirilaren 11n, sustatzailearen jakinarazpena jaso zen, non hainbat ohar egiten baitzituen Ingurumen Baimen Bateratuari buruzko Ebazpen-proposamenaren zirriborroaren gainean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz ingurumen osoaren babes-maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta betearazteko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, baimen honetan sartzen dira, 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatu ez arren, lege horren aplikazio-eremukoak diren jardueren instalazioetan gauzatzen diren eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa duten ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen-baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraikitzeko, muntatzeko, ustiatzeko, lekuz aldatzeko nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudian jasotako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza admi-

nistratibo bakar batean bildu nahi dira. Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietatearen kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuak sortzekoa, hondakin ez-arriskutsuen sortzaile gisa erregistroan inskribatuta egotekoa, kolektorera isurtzeko baimena, eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, eta hala jasotzen da aginduzko txostenetan.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ingurumen-baimen bateratua emateko prozedurak ordezkatu egiten du azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak, Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoak, aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua udal agintaritzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; loteslea izango da, era berean, goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei dagokienez. 29. artikuluan aipatzen denez, goiko guztiak ez du eragotziko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak aplikatzea. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateari dagokion ingurumen-baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, Ezkio-Itsasoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak ere jaso dira, espedientean ageri den bezala.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak finkatzeko, eta ingurumena oro har ahalik eta gehien babesteko ustiapenari ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, honako agiri hauen edukia hartu da kontuan: Europako Batzordearen 2001eko abenduko «Reference Document on Best Available Techniques in the Ferrous Metal Processing Industry» BREF agiriaren edukia, eta 2001eko abenduko «Reference Document on Best Available Techniques for Industrial Cooling Systems» BREF agiriarena.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamenaren zirriborroa sinatu zen, zeinari gehitu baitzitzaizkion Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek aztertu egin dituztela sustatzaileak izapide honetan egindako oharrak, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumen-baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2011ko martxoaren 10ean emandako Ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa,

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatzeko den gainerako araudia, Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateari (helbidea: Anduaga industrialdea z.g., Ezkio-Itsaso, Gipuzkoa; IFK: A-48299515) ingurumen-baimen bateratua ematea Ezkio-Itsasoko udalerrian burdina eta altzairua galdatzeko jarduera gauzatzeko, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzen arabera.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago, hain zuzen ere 2.4 kategorian: «Burdina-metalen galdaketa, eguneko 20 tonatik gora ekoizteko ahalmena duena».

Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak aleazio handiko edo txikiko burdina- eta altzairu-piezak galdatzen ditu serie ertain eta luzeetan. Pieza bakoitza 500 g-tik 1.000 kg-ra bitartekoa da. Urteko ekoizpena 4.000 tona ingurukoa da. Oskol- eta lubeta-sistemak erabiltzen dira.

Enpresa industrialde batean dago, eta 8.662 m^2-ko azalera okupatzen du gutxi gorabehera.

Erabilitako energia-iturriak energia elektrikoa, gas naturala eta A motako gasolioa dira.

Galdaketa-prozesuak etapa hauek biltzen ditu:

- Galdaketa.
- Moldekatzea: lubetan eta oskolean.
- Galda isurtzea.
- Hoztea.
- Desmoldekatzea: lubetan eta oskolean.
- Harea berreskuratzea.
- Piezen akabera: granailaketa, mazarota-kentzea, tratamendu termikoa.
- Paketatzea eta bidaltzea.

Galdaketa 500 Hz-ko frekuntziadun krisol-indukzioko bi labe elektrikoetan egiten da.

Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak atmosferara isurketetarako hamar foku konfinatu dauzka, eta han biltzen dira galdaketan, moldekatzean, desmoldekatzean eta piezen akaberan sortutako isurketak (granailaketa, tratamemenu termikoa).

Bestalde, isurketa barreiatuak egiten ditu galda isurtzean eta hoztean.

Instalazioan sortzen diren hondakin-urak sanitarioak dira, eta industrialdeko kolektorera isurtzen dira.

Jardueran, hondakin arriskutsuak zein hondakin ez-arriskutsuak sortzen dira. Hondakin arriskutsuak sortzen dira bai galdaketa-prozesuan (labeko xehekiak), bai lupetako eta oskoleko moldekatzean (PE-HD bidoiak), bai bestelako eragiketa orokorretan (olio erabilia, fluoreszenteak, pilak eta metagailuak, sprayak, tresna elektriko eta elektronikoak, bustitako trapu eta xurgatzaileak).

Hondakin ez-arriskutsuak, berriz, beste zenbait etapetan sortzen dira: piezen moldekatzean eta akaberan (mahuka-iragazkiak), piezen akaberan (granaila-hautsa), moldekatzean (hondar-xehekiak), galdaketan eta moldekatzean (eskoria / hondarrak), oskoleko moldekatzean (oskol-hondarra) eta biltegiratzean eta bidaltzean (egurra, papera eta kartoia).

Proiektuan, besteak beste, honako neurri hauek biltzen dira, Teknika Erabilgarri Hoberentzat (TEH) har daitezkeenak «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» BREFen ezarritakoari jarraituz: txatarra estalpean biltegiratzea; txatar garbia erabiltzea; itzulerak barruan birziklatzea; maiztasun ertaineko indukzio-labeak erabiltzea; labe-ahoetako xurgatze-kanpaiak, mahuka-iragazkidunak; desmoldekatze-itxitura (lubeta- eta oskol-desmoldekatzea) eta mahuka-iragazkidun arazketa; programa automatikodun nahasgailua, katalizatzailea nahasten duena: erretxina eta hondarra; haizagailu bidezko xurgatze behartuko kanpaia, oskoleko moldeak egiten diren makinetan erabiltzekoa; arrak egitean sortutako gasak xurgatzeko instalazioa; hondarra berreskuratzeko gailu mekanikoa; legarra birsortzeko gailua; ez da aminarik erabiltzen; iragazte bidezko lehorreko xurgatze eta araztea (mahuka-iragazkiak) bi granailagailuetan; ebaketa-isurpenak lehorrean bildu eta araztea; tratamendu termikoetan erregai garbiak erabiltzea (gas naturala); eragiketak automatizatzea eta erregailuak kontrolatzea tratamendu termikoetan.

«Reference Available Techniques for Industrial Cooling Systems» BREFari dagokionez, besteak beste hauek dira erabilgarri dauden Teknika Erabilgarri Onenak: Zirkuitua itxia da, eta ez da garbiketa-hustuketarik egiten, eskuzko purgak baizik. Tanta-bereizgailuak erabiltzen dira, eragin-kortasun handikoak (poliesterra); sarrerako ura aztertu egiten da, gainera.

Bigarrena.– Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak Ezkio-Itsasoko udalerrian sustatutako burdina eta altzairua galdatzeko jarduera ustiatzeko, honako baldintzak eta betekizun hauek ezartzea:

A) Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak administrazioarekiko harremanetarako arduradunari buruz eman dituen datuetan aldaketarik izanez gero, horien berri emango dio Ingurumen Sailburuordetzari.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintza orokorrak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Burdina eta altzairua galdatzeko instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Burdina eta altzairua galdatzeko instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku-zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Altuera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
						X	Y
1	20001968-01	Urtzeko labeen xurgatzea	10,4	0,73	B	557.959,86	4.769.380,05
2	20001968-02	Legarra eta hareategia xurgatzea	9,2	1,13	C	557.950,78	4.769.399,57
3	20001968-03	Regina 8 granagailua xurgatzea	7,28	0,4	C	557.932,63	4.769.436,78
4	20001968-04	Gas naturalaren tratamendu termikorako labearen 1. xurgatzea	5,25	0,43	C	557.929,45	4.769.493,06
5	20001968-05	Gas naturalaren tratamendu termikorako labearen 2. xurgatzea	5,25	0,43	C	557.932,18	4.769.494,42
6	20001968-06	Foundry 0 oskolaren sekzio berria xurgatzea	9	0,76	B	558.001,84	4.769.378,2
7	20001968-07	Foundry 1 oskolaren sekzio berria xurgatzea	10,2	0,8	B	557.990,95	4.769.393,55
8	20001968-08	Foundry 2 oskolaren sekzio berria xurgatzea	9,4	0,8	B	557.995,49	4.769.401,72
9	20001968-09	Argintza	9,5	0,65	B	557.970,75	4.769.423,17
10	20001968-10	Legarra birsortzeko xurgatzea	9,0	0,6	C	557.970,75	4.769.423,17

Gainera, galda isurtzean eta erregimen eteneko hozte-prozesuan isurketa barreiatuak sortzen dira.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Isuri atmosferikoek isurtzeko muga-balio hauek ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Foku-zk.	Foku-kodea	Substantziak	Isurketarako muga-balioak
1	Urtzeko labeen xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		Dioxinak eta furanoak (PCDD eta PCDF)	---
2	Legarra eta hareategia xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
3	Regina 8 granagailua xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
4	Gas naturalaren tratamendu termikorako labearen 1. xurgatzea	Opakutasuna	1,5 (Ringelmann eskalan)
		Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
		Nitrogeno oxidoak (NOX)	300 ppm
5	Gas naturalaren tratamendu termikorako labearen 2. xurgatzea	Opakutasuna	1,5 (Ringelmann eskalan)
		Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
		Nitrogeno oxidoak (NOX)	300 ppm
6	Foundry 0 oskolaren sekzio berria xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
		Sufre dioxidoa (SO_2)	4.300 mg/Nm^3
		Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
		Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	---
7	Foundry 1 oskolaren sekzio berria xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
		Sufre dioxidoa (SO_2)	4.300 mg/Nm^3
		Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
		Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	---
8	Foundry 2 oskolaren sekzio berria xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
		Sufre dioxidoa (SO_2)	4.300 mg/Nm^3
		Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
		Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	---
9	Argintza	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
		Sufre dioxidoa (SO_2)	4.300 mg/Nm^3
		Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
		Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	---
10	Legarra birsortzeko xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
		Sufre dioxidoa (SO_2)	4.300 mg/Nm^3
		Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, zenbatekoak ez badu muga-balioa % 40tik gora gainditzen. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an, muga-balioa

gehienez % 25 gainditzea onartuko da. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuko immisio-mailek ezin izango dituzte inoiz gainditu higiene aldetik onargarriak diren balioak.

B.1.4 Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximinietan beharrezko diren baliabideak ezarriko dira, hain zuzen ere Industria Ministerioak 1976ko urriaren 18ko Aginduan, Industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurre hartzeari eta zuzentzeari buruzkoan, ezarritako baldintzak betetzeko. Hala, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara heltzeko sarbide seguruak eta errazak ezarriko dira.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, egokitu behar dira laginak hartzeko gunetik fluxuaren noranzkoaren eta kontrako noranzkoaren arabera (L1 eta L2 parametroak) neurketa-gunea baino lehenago dagoen fluxu gaseosoko edozein perturbaziora dagoen distantzia, 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoari jarraituz.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Halako kasuetan, neurketen txostenean, laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurketa barreiatuak murrizteko helburuarekin, isurketa bakoitza biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztiak egoera onean mantenduko dira. Gainera, isurketa horien murrizketa ziurtatze aldera, egunero eta astero garbitu egingo dira instalazioak, kanpoko ateen itxitura, industria-nabeko itxitura eta abar. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentzioko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: burdina eta altzairua galdatzea.

Jarduera-taldea: 2.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-27.51.

Isurketa-gunea	Hondakin-ur mota	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-gunearen UTM koordenatuak:
1	Etxeko urak	Hobi septikoko ura	Industrialdeko kolektorea	X: 557.975,51 Y: 4.769.336,16

B.2.2.– Isurketaren emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: industria-urak.

Orduko puntako emaria	0,22 m^3/h
Eguneko batez besteko bolumena	5,41 m^3/eguneko
Urteko bolumena	1.185 m^3/urteko

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Isurketa Erregelamenduan agertzen diren mugak eta baldintzak bete beharko dituzte isurketek.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.2.4. Arazteko eta husteko instalazioak.

Hidrokarburoak bereizteko gailu bat eduki beharra dago, konpresoreen purgetako ura arazteko. Beste aukera bat da ur hori aurretik tratatu gabe biltzea, gero baimendutako kudeatzaile batek eraman dezan.

Egiteko dauden jarduketak.

Euriak partikulak herrestan eramatea saihesteko egin beharreko jarduketak egin ondoren, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak euri-urei buruzko analisi bat aurkeztu beharko du, Administrazioaren erakunde laguntzaile batek egina, euri-ur horiek kutsadura herrestan eramaten duten zehazte aldera.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan, isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta, behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Ikuskatu ahal izateko zuzeneko sarbidea ahalbidetzen duen lekuan kokatuko dira kutxetak, hala egitea beharrezko iritziz gero.

B.3.– Instalazioetan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Fabrikan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira, euren izaera zehazteko eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren hondakin mota ezberdinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorrian bertan bereiziko dira, eta hondakinak biltzeko eta biltegiratzeko bitarteko egokiak jarriko dira, nahasketarik ez gertatzeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatzegune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira hondakinok lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken destinoa zabortegi baimenduan deuseztatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik; izan ere, kontuan hartu behar dira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. 16/2002 Legearen 10. artikuluan (2.d idatzi-zatian) ezarritakoa alde batera utzi gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinen kopurua handitzeak aurretik ezarritako biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden hondakinen kasuan edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Ezkio-Itsasoko Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Galdaketa».

○ 1. hondakina: «Labeko xehekiak».

– Identifikazioa: 48299515/20-23236/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q9/D9/S25/C8-11-7/H10/A212/B0011.

– EHZ: 100207.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.080 kg.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabilia».

– Identifikazioa: 48299515/20-23236/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q5/R9/L8/C41/H14/H14/A212/B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 800 kg.

○ 2. hondakina: «Fluoreszenteak».

– Identifikazioa: 48299515/20-23236/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q6/R13/S40/C16/H14/A212/B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 42 unitate.

○ 3. hondakina: «PE-HD bidoiak».

– Identifikazioa: 48299515/20-23236/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q5/R13/S36/C41-51/H5/A212/B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 71 unitate.

○ 4. hondakina: «Pilak eta metagailuak».

– Identifikazioa: 48299515/20-23236/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q6/R13/S37/C11/H6/A212/B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 12 kg.

○ 5. hondakina: «Sprayak».

– Identifikazioa: 48299515/20-23236/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q5/R13/S36/C41/H3B/A212/B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 71 unitate.

○ 6. hondakina: «Baztertutako ekipo elektriko eta elektronikoak»

– Identifikazioa: 48299515/20-23236/2/6.

– Hondakinaren kodea: Q14/R4/S40/C6-18/H6-14/A212/B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: unitate 1.

○ 7. hondakina: «Bustitako trapu eta xurgatzaileak».

– Identifikazioa: 48299515/20-23236/2/7.

– Hondakinaren kodea: Q05/R13/S40/C51/H05/A212/B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 55 kg.

a) Hondakin arriskutsu mota jakin batzuk, isuri eta nahastuz gero, arriskutsuago bihurtzen dira, edo haien kudeaketa zaildu. Hori dela-eta, halakoak biltzeko sistemak bereiziak izango dira.

b) Hondakin arriskutsuentzako ontzietan kontuan izan beharko dituzte uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak (833/1988 Errege Dekretua, Hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen duena); ontzi horiek, gainera, itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela.

Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian horretarako zehaztutako jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko du jatorritik helmugaraino. Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, hodi fluoreszenteak barne direla, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira (208/2005 Errege Dekretua, Tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoa). Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete beharko dute otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa (106/2008 Errege Dekretua, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa). Baimendutako kudeatzailearen onarpen-agiria eskuratzeko, hondakinak eraman aurretiazko jakinarazpena egiteko eta kontrolaren eta jarraipenaren agiria betetzeko betebeharretatik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak gaika bildutako udal-hondakinekin eta horien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman-izanaren egiaztagiriak gutxienez bost urte gorde beharko dira. Edonola ere, I) idatz-zatian definitutako hondakinak sortzeari buruzko kontrol-erregistroan jaso egingo dira ekipo elektriko eta elektronikoetan sortutako hondakin-kopuruak.

j) Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak PCBdun gailuak dituen artean, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak Ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 (EE) Erregelamenduan zehazturiko substantzia erabiliak bere eskuetan dituen heinean, berreskuratu egingo dira, aldeek onetsitako bitarteko teknikoen bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz deuseztatzeko, edota birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko dira, aparatuak berrikusteko edo mantentzeko lanetan nahiz horiek desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Aurreko e) eta f) idatzi-zatietan (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta l) eta m) idatzi-zatietan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistema erabilita.

m) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak bete beharko ditu amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

n) Hondakin arriskutsu bakoitzak dagokion izendapena eta kodifikazioa ezarria du, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, oinarrizko beste kode batzuk, haien izaera dela-eta, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jarduerak iraun bitartean. Kode horiek definitu egiten dute hondakina zein motatakoa den eta zein osagai arriskutsu dituen (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota dago hori), bai eta hondakina zein jarduerak eta zein prozesuk sortzen duen ere (uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota dago). Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2007-2010) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu beharko du hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere berreskurapena edo balioa ematea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onartze-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzeko eskatzen bada.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta dagoen	Zenbatetsitako ekoizpena (t)
Zepak	100903	Galdatzea eta moldekatzea	1,57
Hondar-xehekiak	100910	Moldekatzea (desmoldekatzean sortutako hondar-xehekiak biltzea)	40
Granaila-hautsa	100999	Piezen akabera (granailaketa)	13,5
Mahuken iragazkiak	100999	Moldekatzea eta piezen akabera (granailatzea, bizar-kentzea eta ebakitzea)	4 m^3
Zura	150103	Paketatzea eta bidaltzea	12,9
Papera eta kartoia	200101	Paketatzea eta bidaltzea	2,4

a) «Hondar-xehekiak» izeneko hondakinaren kasuan, hondakin horrek ispilu-sarrera du gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Karakterizazio horretan sartu beharreko parametroak zehaztearren, harremanetan jarri beharko dute Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzaren Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuarekin. Baldin eta hondakina arriskutsua dela ezartzen bada, ebazpen honetako B.3.1 idatz-zatian jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak materialen arabera egoki bereizita entregatu beharko zaizkio agente ekonomiko (hornitzaile) bati, berrerabiliak izan daitezen, ontzi erabilien kasuan; edota berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati, ontzi-hondakinen kasuan.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki; hondakinen azken helburua balioa ematea denean, berriz, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakin guztiak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek emandako onarpen-agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez, agiri horiek nahitaezkoak direnean.

e) Halaber, Hondakinak zabortegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat edukiko du, eta bertan, ondorengo datu hauek jasoko dira: kopurua, izaera, identifikazio kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aipatutako d) eta e) idatzi-zatietan (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta f) idatzi-zatian adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistema erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako betebeharrak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean ezarritakoarekin bat etorriz, eta txosten horretan bildutako gomendioen arabera, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) enpresak betebehar hauek izango ditu:

- Bildutako hondakin eta substantzia arriskutsu guztietarako babes-neurriren bat izatea, isuriak saihesteko.
- Gasolio-horniketarako mahuka atxikitze-ontzi batean jartzea.
- Olio-isuriak atxikitzeko ontzia hustea, haren edukiera murriztu ez dadin.
- Instalazioak egoera onean zaintzea, ingurumenaren gaineko arriskuak saihesteko.

Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak bere egingo ditu, halaber, ebazpen honetako D.3 atalean bildutako neurriak, hau da, ezohiko funtzionamendu-kasuetarako prebentzio- eta jardun-neurriak eta hondakinak biltegiratzeari buruz B.3 atalean jasotakoak.

Lur-mugimenduak egitea dakarten obrak egin behar izanez gero, jardueraren sustatzaileak hondeatu behar dituen materialen karakterizazioa egin beharko du (lurra, obra-hondakinak, eta abar),

jardun kutsatzaileen ondorioz erasan diren egiaztatzearren eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearren.

Karakterizazio horren emaitza Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko da, baloratu dezan, kudeaketa-lana egin aurretik bidali ere.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 10. artikuluko 2. paragrafoak ezarritakoarekin bat etorriz, jarduera ezartzeko edo zabaltzeko hondeatze-lanetan edo lur-mugitzeetan kutsadura-zantzuak hautematen badira, lan horien arduradun zuzenak horren berri eman beharko dio udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, beharrezkoa izango balitz hartu beharreko neurriak ezar ditzan azken horrek, 17. artikuluko seigarren paragrafoak ezarritakoa betez.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak:

a) Beharrezkoak diren neurri guztiak ezarriko dira, honako indize akustiko hauek gainditu ez daitezen:

a.1. Jarduera honako maila hauetara egokitu behar da: etxebizitzen barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60\ segundo}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00etatik 23:00etara bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 45 dB(A) ere.

a.2. Jarduera honako maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60\ segundo}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00etatik 07:00etara bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 35 dB(A) ere.

a.3. Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa aterako, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko baita), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula: Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran bete beharreko zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (L_{Aeq},d, L_{Aeq},e eta L_{Aeq},n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gainditukо.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (L_{Aeq},Ti). T_i jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gainditukо.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa gauzatzeko, bete egin beharko da sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoa eta ondoko atal hauetan ezarritakoa:

C.1.– Atmosferara egindako isuriak kontrolatzea.

a) Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak egiten dituen isuriak kontrolatu beharko ditu, honako informazio hau emanez:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20001968-01	Urtzeko labeen xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	Urtean behin
			Dioxinak eta furanoak (PCDD eta PCDF)	Neurketa lehen urtean*
2	20001968-02	Legarra eta hareategia xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	Hiru urtean behin
3	20001968-03	Regina 8 granagailua xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
4	20001968-04	Gas naturalaren tratamendu termikorako labearen 1. xurgatzea	Opakutasuna	Hiru urtean behin
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_x)	
5	20001968-05	Gas naturalaren tratamendu termikorako labearen 2. xurgatzea	Opakutasuna	Hiru urtean behin
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_x)	
6	20001968-06	Foundry 0 oskolaren sekzio berria xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	Hiru urtean behin
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Sufre dioxidoa (SO_2)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_x)	
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
7	20001968-07	Foundry 1 oskolaren sekzio berria xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	Hiru urtean behin
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Sufre dioxidoa (SO_2)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_x)	
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
8	20001968-08	Foundry 2 oskolaren sekzio berria xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	Hiru urtean behin
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Sufre dioxidoa (SO_2)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_x)	
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
9	20001968-09	Argintza	Guztizko partikulak (GP)	Hiru urtean behin
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Sufre dioxidoa (SO_2)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_x)	
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
10	20001968-10	Legarra birsortzeko xurgatzea	Guztizko partikulak (GP)	Hiru urtean behin
			Sufre dioxidoa (SO_2)	
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_x)	

* Laginketaren maiztasuna aldatu liteke, lortutako emaitzen arabera.

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta

furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat). Aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetzak prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoaren arabera egin beharko dira. Edonola ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Baimendutako kontrol erakundeak adierazitako parametro guztiak neurtu eta horien gainean egiten dituzten txostenak bidali beharko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurien ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Erregistro bat egin beharko da, euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita. Erregistro horrek 1976ko urriaren 18ko Aginduak, Industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egin diren neurketen emaitzak, mantentze- eta garbiketa-eragiketak, aldiroko berrikuspenak, matxurengatiko geldialdiak, egiaztapenak, edozein motatako gertaerak, eta abar. Dokumentazio guztia eguneratuta edukiko da, eta ingurumen-ikuskarien eskura egongo da.

C.2.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren funtzionamenduaren adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Produkzioa	t
Txatar-kontsumoa / tona produktu	t / t
Gas naturala / tona produktu	Kwh / t
Sortutako hondakin arriskutsuak / tona produktu	t / t
Sortutako hondakin ez-arriskutsuak / tona produktu	t / t
Hondakin ez-arriskutsu balioztatuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	t / t (%)
Ingurumen-arloko gorabehera kopurua (ihesak, suteak…)	Zk.

C.3.– Zarataren kontrola.

a) Hiru urtean behin, indize akustiko hauek ebaluatu beharko dira: L_d, L_e, L_n, L_{Aeq},T_i eta $L_{Aeq,60\ segundo}$. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetzak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

C.4.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, betiere martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde independente batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan bilduko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da txostenean, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien arrazoi posibleak eta konponbideak, eta, aurretik zehaztu ez badira, laginketen xehetasunak.

C.5.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan, jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta, hala dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.510. epigrafea, Burdina galdatzea; 27.520. epigrafia, Altzairua galdatzea); eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, Lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituena. Hori dela-eta, Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egiteko prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko funtzionamendu-kasuetan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean, zehaztu egiten dira ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentzioko mantentze-lanei buruzko eskuliburua eduki beharko da, instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea); biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak); egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak, edo gainbetetzerako alarma-sistemak; lante-

giko kolektore-sarea zaindu eta garbitzeko sistemak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota); eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Lehenago aipatutako prebentzioko mantentze-lanei buruzko eskuliburuan, bildu beharra dago atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko sistemak (arazketa, minimizazioa, eta abar) egoera onean daudela bermatzeko neurriak.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta, han, jasoko dira aldizka egindako mantentze-lanak eta antzemandako gertaerak.

e) Besteak beste, olioak, erregaiak, produktu kimikoak, zepak eta, orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Hori dela-eta, isuriak, jarioak edo ihesak jasan ditzaketen lursailen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hautsezko produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten zulo itxiak erabiliko dira.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztu beharko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak; eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Kubeten hustuketa-lanetarako kontrol gisa jardungo duen protokolo edo agiri bidezko prozedura igorri beharko da Ingurumen Sailburuordetzara.

k) Hidrokarburoen bereizgailuak aldian-aldian ikuskatuko dira, hondakinak pilatu ez daitezen. Dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

l) Halaber, hidrokarburoen bereizgailuan metatutako lohiak, olioak eta koipeak kendu egingo ditu baimendutako kudeatzaileak, isuriaren kalitatea arriskuan jartzen duten metatzeak saihesteko behar bezain maiz.

m) Hidrokarburo-bereizgailuaren mantentze-lanei dagokienez, ondo garbituko da, eta aldiro bertan metatutako lohiak eta flotagarriak kendu dira, Baimendutako Kudeatzaile batek eraman ditzan.

n) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

o) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta legeria horretan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

p) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak indarrean izateko.

q) Ingurunearen gainean edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen hondakin, erregai edo substantzien isurketa esanguratsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

r) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentzio-neurriak, berriro gerta ez dadin.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

s) Egiaztatu beharko da instalazioek bete egiten dituztela suteen aurkako babesari buruz indarrean den araudian ezarritako betekizunak. Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua aplikatu behar baldin bada, egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak. Hori egin ezean, egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da eskumena duen erakundearen aurrean.

Bestela 2267/2004 Errege Dekretu hori zergatik ezin den aplikatu justifikatu beharko da. Egiaztatu beharko da, gainera, instalazioek suteen aurkako babesaren arloan ezarritako exijentziak betetzen dituztela. Egiaztapen hori egiteko Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztuko zaio enpresa instalatzaileak egindako ziurtagiria, suteen aurka babesteko instalazioen araudia onartzen duen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorrita. Halaber, tresna, ekipo eta sistemen mantentze-lanak errege dekretu horretan finkatutakoaren arabera burutzen direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da. Agiri horiekin batera, baimendutako enpresa instalatzaile edo mantentzaileak industria-erregistroan inskribatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

E) Urtean behin Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi Isuritako eta Eskualdatutako Kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, betiere E-PRTR Erregelamenduko eta ingurumen-baimen bateratuetako isurien gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozeduarakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian dago eskuragarri): Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatu ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen gaietan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak xedatutakoari jarraikiz –lege horrek 2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu–, eta, betiere, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da.

F) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. paragrafoari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote giza osasunerako eta ingurumenerako nolako arriskua izan dezaketen instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, hau da, 1907/2006 EE Erregelamenduan aurreikusitako erregistratzeko eta ebaluatzeko prozesuan nolako arriskuak identifikatu diren.

G) Ingurumen-baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Instalazioetan egiten den edozein aldaketa jakinarazi egin beharko da; horretarako, honako helbide elektroniko honetan ageri den formularioa beteko da: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/es/contenidos/informacion/ippc/es_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, organo horrek eskatutako aldaketa kalifikatu eta funtsezkoa den ala ez esango du.

Era berean, proiektatutako aldaketa Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko IB eranskinean, edo proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko I. eranskinean sartuta badago, hizpide dugun aldaketari baimena eman aurretik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaio.

Baldin eta aldaketa ez badago jasota ez 3/1998 Legearen IB eranskinean ez 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean, baina bai horren II. eranskinean, organo honek gehienez ere hiru hilabeteko epean erabakiko du aldaketa horri ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera.

Hirugarrena.– Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko du ebazpen honetako bigarren ataleko ondorengo puntuetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, ebazpen hau jakinarazten denetik gehienez 6 hilabeteko epean:

B.2.4 (euri-uren analisia).

B.3.1 e) eta B.3.2 d) (Sortutako hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak onartzeko agiriak).

B.3.2 f) (Sortutako hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen kontrola erregistratzeko eredua).

B.3.2 a) (Baldin eta Europako Hondakinen Zerrendan ispilu-sarrera duten hondakinak erretiratu ez badira, halako hondakinen karakterizazioa).

B.4 (Lurzorua babesteko neurriak).

C.1 (Atmosferara egindako isuriak kontrolatzea).

C.3 (Zarata kontrolatzeko proposamena).

C.5 (Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko agiri bategina).

D.1 (Mantentze-lanetako isurien eta hondakinen balioespena).

D.3 a) (Prebentzioko mantentze-lanei buruzko eskuliburua).

D.3 h) (Produktu kimikoak biltegiratzeko ziurtagiriak).

D.3.i) (Larrialdi-kasuetarako material-zerrenda).

D.3.j) (Kubetak husteko maniobraren protokoloa).

D.3.s) (Suteen aurkako babesaren ziurtagiriak).

Halaber, lehen aipatutako epean, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du teknikari eskudunak emandako ziurtagiria. Bertan, ziurtatu egingo du instalazioak aurkeztutako proiektuarekin eta ebazpen honetan xedatutakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Dena den, baldintza horiek bete ote diren egiaztatzeko, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egingo dute, hala badagokio.

Laugarrena.– Ingurumen-baimen bateratu hau 8 urtez egongo da indarrean. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da, eta, hala badagokio, elkarren segidako aldietarako eguneratu beharko da.

Ingurumen-baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumen-baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuetan.

Artikulu hori betetzea alde batera utzi gabe, ebazpen honetako baldintzak aldatu ahal izango dira –ingurumena zaintzeko programan jasotako baldintzak barne hartuta–, jardueraren sustatzaileak eskatuta, behar bezala justifikatuz gero. Gainera, ofizioz aldatu ahal izango dira, honako egoera hauetan:

● Araudi berria indarrean jartzen bada.

● Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitu beharra ikusten bada, bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

● Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

Seigarrena.– Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak, ebazpen honen xede den burdina eta altzairua galdatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

● Epe barruan ez egiaztatzea bete egiten direla ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumen-baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak, interesdunak, behar bezala justifikatuz, epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietatearen nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateari, Ezkio-Itsasoko Udalari, ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 12an.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak Ezkio-Itsasoko (Gipuzkoa) udalerrian sustatutako burdina eta altzairua galdatzeko jarduerari ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduraren barruan, ingurumen-organoak sustatutako jendaurrean jartzeko izapidean, bi alegazio-idazki aurkeztu dira.

Lehenengo idazkian, aipatu egiten dira Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak garatzen duen jarduerak ateratzen dun zarata eta sortzen dituen kutsatzaileak.

Bigarrenean, berriz, adierazi egiten da jarduera horrek usain txarrak eta oso gogaikarriak sorrarazten dituela. Adierazi egiten da, halaber, kea igorri eta zarata ateratzen duela, bai egunez, bai gauez. Bestalde, azaldu egiten da inpaktuak murriztu egin direla, instalazioetan berriki egindako aldaketen ondorioz.

Ildo horretan, gogorarazi behar da uztailaren 1eko 16/2002 Legeak atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea duela helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz, horrela ingurumen osoaren babes maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz, ingurumen-baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen den jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko.

11. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzekoa den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira.

Arlo honetan, ingurumen-baimen bateratua emateko eskumena duen organoak, proiektua bere osotasunean ebaluatu ondoren, ebazpen-proposamena egingo duela jasotzen da. Proposamena ingurumen-baimen bateratuaren edukiari buruzko Legearen 22. artikuluak ezarritakoan oinarrituko da eta emandako txosten lotesleen baldintzak jaso beharko ditu. Ildo horretan, 22. artikulu horrek ezartzen duenez, eman beharreko baimenak, besteak beste, alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:

a) Isurtzeko muga-balioak, teknika erabilgarri onenetan oinarrituta.

b) Hala behar denean, lurzoruaren eta lurpeko uren babesa bermatzeko baldintzak.

c) Instalazioan sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedurak eta metodoak.

d) Urrutiko edo mugaz gaindiko kutsadura gutxitzeko baldintzak, hala dagokionean.

e) Isuri eta hondakin mota guztiak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, honako hauek zehaztuta: neurketak egiteko metodologia, maiztasuna eta ebaluatzeko prozedurak.

f) Ustiaketaren baldintzen inguruko neurriak, ingurumenari eragin diezaioketen eta ohikoak ez diren egoeretan (martxan jartzea, isuriak, funtzionamendu-akatsak, aldian aldiko geldialdiak edo behin betiko itxiera).

g) Aplikatzekoa den legeria sektorialak ezarritako bestelako neurri edo baldintzak.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren arloan indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, zein Ezkio-Itsason Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateak sustatutako burdina galdatzeko plantaren instalazioari aplikagarri zaion arloko ingurumen-araudiarekin bat etorriz, ingurumen-organoak instalazio osoaren balorazio orokorra egin du, kontuan hartuta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio arloan eta aplikagarri den arloko gainontzeko araudian ezarritakoak. Horiek horrela, lehendabizi proiektuaren bideragarritasuna aztertu da, gero proiektu hori modu egokian gauzatzeko hartu behar diren neurriak zehaztu ahal izateko.

Horrela, ingurumen-baimen bateratu honetan, jaso dira organo honen irudiko Mein Fundición en Cáscara, S.A. (Funcasa) sozietateari ezarri behar zaizkion baldintzak eta eskakizunak, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak adierazitako helburuak betetzeko, atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihesteari, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitzeari eta kontrolatzeari dagokionez.

Ildo horretan, ingurumen-baimen bateratuak honako alderdi hauei buruzko baldintzak eta betekizunak jasotzen ditu:

a) Instalazioaren diseinurako eta funtzionamendurako baldintza orokorrak, eta, horien artean, zarataren gaineko baldintzak.

b) Ingurumena zaintzeko programa.

c) Ezohiko egoeretarako prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak.

Hala, «B.1 Airearen kalitatea babesteko baldintza orokorrak» atalean adierazten da instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituztela ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gaindituko.

«B.1.2 Fokuak identifikatzea. Katalogazioa» atalean, instalazioan dauden fokuak identifikatu eta katalogatzen dira, eta hondakin-gasen ebakuaziorako tximiniek izan behar duten gutxieneko altuera adierazten da.

«B.1.3 Isurketen muga-balioak» atalean, berriz, foku bakoitzean kontuan hartutako parametroetarako errespetatu behar diren muga-balioak ezartzen dira, indarrean dagoen araudia kontuan hartuz.

Zaratari dagokionez, «B.1.5 Zaratari buruzko baldintzak» atalean, egunez nahiz gauez igorri daitekeen gehieneko zarata-maila ezartzen da.

Gainera, «C.3 Zarataren kontrola» atalean, ingurumen-alderdi horretan aplikatu beharreko kontrola ezartzen da.